



# Moby Dick, balea zuria

Ismaelek biziki maite ditu abentura mota guziak. Halako batean, ostatu zoko batean, Queequeg izeneko arpoilari miste-riotsu bat ezagutu du. Adiskide egin dira eta itsasontzi berean sar-tzea erabaki dute. Hautatzen duten itsasontziaren izena *Pequod* da eta hango kapitaina, Achab.

5

Achab gizon guziz arraroa da. Haren helburu bakarra: Moby Dick balea zuria hiltzea, harengatik galdu baitzuen eskuineko hanka.

**ez dugu atsedeenik izanen:**  
ez dugu bakerik izanen.

**txorrua:** turrusta, zurrusta.

**txikitzen:** xehatzen, puskaizten,  
hausten.

**sarritan:** maiz, ardura.

Behin, itsas zabalean, Achab-ek biltzen ditu itsasontziko gizon guziak eta erraiten die:

10

– Hemen zaudete balea zuria jarraitzeko; ez dugu atsedeenik izanen harrapatu arte, bi hemisferioak zeharkatu behar baditugu ere. Haren ur txorrua odoletan gorriturik ikusi arte ez dugu bar-katuko!

Baina egunak joan, egunak etorri, Moby Dick ez da agertzen. 15 Beste zenbait balea harrapatzen dute eta txikitzen ere baina Moby Dick beldurgariaren arrastorik nehon.

Behin, gauaz, marinel batek balea zuri bat ikusirik, hiru egun iragaiten dituzte honen gibeletik. Sarritan saiatzen dira Moby Dick hiltzen eta guzien buruan, txalupa andana bat galdu dute, 20 ontzikide bat baino gehiago ere, dena alferrik. Alabaina, anitz arpoi sartu diote Moby Dick-i bizkarrean, denak debaldetan.

Hirugarren egunean, Achab-ek txalupa guziak itsasoratzea



manatzen du, denen artean balea ingura dezaten. Baleak txalu-  
 25 pa bat eta bestea hondoratzen ditu erasoaldi bakoitzean. Azken  
 txalupan, Achab badoa, begiak gorriturik. Arpoia botatzen du eta  
 balea erdiz-erdi jotzen baina arpoiaren soka balearen lepoan kora-  
 pilatzen da eta Achab gibeletik eramaiten du balea zuriak.

Haserre gorrian, Moby Dick-ek *Pequod* ere urperatzen du.  
 30 Ismael eta Queequeg-ek doi-doietarik erdietsi dute beren biziaren  
 salbatzea. Aldi honetan ere, Moby Dick nagusitu zaie gizonei.

**hondoratzen:** urperatzen.

*Saltisa pika 2*, Erdiko zikloa, Erein,  
 IKASek egokitua.

## Orioko balearen kantua

Mila bederatzia eta	Ikusi zutenean	Bost txalupa jiran ta
Lehenengo urtean	Hala zebilela,	Erdian balea
Maiatzaren hamalau	Berehala joan ziren	Gizonek egin zuten
Garren egunean	Traineruen bila,	Bai nahiko pelia*
Orioko herriko	Arpoi eta dinamitak	Ikusi zutenean
Barraren aurrean	Eta soka bila.	Hil edo itoa
Balea agertu zen	Agudo ekartzeko	Lehorretikan bazen
Bederatzia aldean.	Etzan jende hila.	Biba eta txaloa.
Handia bazen ere	Bost traineru joan ziren	Hamabi metro luze
Azkar ibilian	Patroi banarekin	Gerrira hamar lodi.
Bueltaka han zebilen	Mutil bizkor bikain	Buztan pala lau zabal
Joan ta etorrian.	Gutziz onekin.	Alboetan pala bi.
Ondarra harrotuz	Manuel Olaiola	Ezpainetan bizarrak
Murgil igerian.	Eta Loidirekin.	Beste ilara bi,
Zorriak zeuzkan eta	Uranga, Atxaga ta	Orraziak bezala
Halek bota nahian.	Manterolarekin.	Hain zeuzkan ederki.
	Baleak egindako	Gertatua jarri dut
	Salto ta marruak	Egiaren alde.
	Ziren izugarri eta	Hau horrela ez bada
	lkaratzekoak.	Jendeari galde.
	Atzera egin gabe	Bihotzez pozturikan
	Hango arriskuak	Atsegintsu gaude.
	Arpoiarekin hil zuten	Gora oriotarrak
	Han ziran hangoak	Esan beldur gabe.

\* *guduka*



### 1 ULERMEN GALDEAK

- Ismael, Queequeg, Moby Dick eta Ahab ipuin honetan agertzen diren pertsonaiak dira. Egizu bakoitzaren aurkezpen laburra.
- Zer da *Pequod* itsasontziko kapitainaren helburu bakarra ?
- Nola iragan da Moby Dick eta itsasiddeen arteko gudua ?
- Nola bukatzen da istorio hau Ismael, Queequeg, Moby Dick eta Ahab pertsonaien izenak ?

### 2 JAKIN

- ▶ Balea eta marrazoa itsas animaliak dira. Behar duzun informazioa bil ezazu (hiztegi edo entziklopedietan) eta saia zaitetz taula honen betetzen ezaugarri batzuk erabiliz.

Ezaugarriak

Balea

Marrazoa

ugaztuna

bai

ez

.....

.....

.....

### 3 BERRIZ IRAKUR

- ▶ Erranahi zuzena atzeman ezazu.

*Moby Dick-en haserreak eragindako erasoek Pequod ere hondoratu dute.*

- Pequod* itsasontzia itsasgizonen hondoratu dute.
- Baleak itsasoaren laguntzarekin *Pequod* hondoratu du.
- Balea hain da kexu non *Pequod* ere hondoratu baitu.
- ▶ Hona hiru erranaldi elkarren hurbilekoak. Bat bakarrik aurki dezakezu testuan. Zein ?
  - Hirugarren egunean, Ahab-ek txalupa guziak itsasoratzeke mantatu du denon artean balea ingura dezaten.*
  - Hirugarren egunean, Ahab-ek txalupa guziak itsasoratzea mantatu du denon artean balea ingura dezaten.*
  - Hirugarren egunean, Ahab-ek txalupa guziak itsasoratzea mantatu du denon artean balea inguratzeke.*

- ▶ Erantzun egokia atzeman ezazu.  
Achab-ek Moby Dick balea zuria hili nahi du :
  - Balea zuriarengatik galdu duelako eskuineko hanka.
  - Moby Dick beldurgarria delako.
  - Moby Dick-ek txalupak hondoratzen dituelako.
  
- ▶ Hiru erranaldi hauek testuan hartuak dira. Testuko ordena berean idatz itzazu.
  - *Hiru egun iragaiten dituzte honen gibeletik.*
  - *Arpoia botatzen du eta balea erdiz-erdi jotzen baina arpoiaren soka balearen lepoan korapilatzen da eta Achab gibeletik eramaiten du balea zuriak.*
  - *Beste zenbait balea harrapatzen dute eta txikitzen ere baina Moby Dick beldurgarria-  
ren arrastorik nehon.*
  
- ▶ Hona hiru erranaldi. Horietarik bi erranahi berekoak dira eta beste bat, aldiz, oker da.  
Idatz itzazu bi erranaldi zuzenak.
  - Adiskide egin dira eta itsasontzi berean sartuko direla erabaki dute.
  - Adiskide egin dira eta itsasontzi berean sartzea erabaki dute.
  - Adiskide egin dira eta itsasontzi berean sartuz erabaki dute.
  
- ▶ Asma ezazu Moby Dick-en istorioaren segida.